




ProQuest
RefWorks

GrALA EGITEKO GIDA AZKARRA

www.ehu.eus



2024eko
URRIAN
EGUNERATUA

:: ZER DA **REFWORKS** ETA NOLA IZENA EMAN

Gestore bibliografikoak erreferentzia bibliografikoei buruzko datu baseak sortu eta gestionatzeko aplikazioak dira, bai eta bibliografiak osatu eta, testu dokumentuetan, aipuak automatikoki txertatzeko ere.

UPV/EHUREn unibertsitate bibliotekak **RefWorks** aplikazioa erabiltzeko aukera eskaini eta gomendatzen du, gradu amaierako lanak egiterakoan, bibliografia behar bezala kudeatzeko. Erreferentzia bibliografikoak eta atxikitako dokumentuak biltegiratuta egoten dira RefWorksekero zerbitzarian bertan, norberaren kontu batean, eta eskura daitezke Internetera konektatutako edozein gailutatik.

RefWorks bidez, errazagoa da **informazio iturrietan** egin beharreko bilaketa prozesua, edozein irakaskuntza edo ikaskuntza lan egin behar denean. Aplikazio online honen bidez:

- ✓ **Erreferentzia bibliografikoak importa daitezke** iturri ezberdinatik.
- ✓ **Aipamenak tartekatu** dokumentua idazterakoan.
- ✓ **Bibliografia sortu** formatu ezberdin askotan.
- ✓ **Informazioa partekatu.**

:: SARBIDEA

<https://refworks.proquest.com/>

:: ERREGISTROA ETA KONTUA SORTZEA

- ✓ Hautatu **kontua sortzeko** aukera hasierako pantailan.
- ✓ Aplikazioak emandako jarraibideak bete behar dira gure kontua sortzeko.
- ✓ **OSO GARRANTZITSUA:** RefWorks erabili ahal izateko ezinbesteko da unibertsitatearen **posta elektronikoaren helbidea** izatea.
- ✓ Behin pasahitza sartuta, sistemak **egiazatzeko mezu bat** bidaltzen du adierazi zaion posta elektronikoko helbidera. Kontua sortuta egongo da mezuari erantzun bezain pronto.

Facilitando la investigación

Conectarse para usar RefWorks

Introduzca su dirección de correo electrónico

Introduzca su contraseña Mostrar

¿Olvidó su contraseña?

Conectarse

Utilizar conexión de mi institución

Crear cuenta


:: ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOEN ESPORTAZIOA ETA IMPORTAZIOA

- ✓ GrALerako gaia hautatu eta gero, ikertu beharreko gaian espezializatutako informazio iturriak identifikatu eta aurkitu behar dira.
- ✓ Gomendagarria da ehuBiblioteca katalogoa erabiltzea, bertan izango baitituzu erabilgarri datu base nagusien bitarteko elektronikoak. Lehenago identifikatu beharko duzu **saioa hasiz** eta **norberaren kontura** sartuz.
- ✓ Erreferentzia bibliografiko interesgarriak esportatzeko, modu ezberdinetan egin beharko duzu bai **katalogotik bertatik nola datu base ezberdinatik**, tokian tokiko jarraibideen arabera.
- ✓ Ondoren, katalogotik edo Dialnet Plus edo ProQuest datu-baseetatik nola egin irakatsiko dizugu edo Google Akademikoa bezalako baliabideetatik.


:: ERREGISTROAK NOLA ESPORTATU **ehuBiblioteca KATALOGOTIK**

Sartu ehuBibliotekako katalogora <https://ehu.on.worldcat.org/> helbidean eta, lortu nahi duzun informazioa bilatu eta aurkitu ondoren, jarraitu honako urrats hauei:


- 1 Sakatu interesatzen zaizun erregistro bakoitzean **Aipamena** botoiari.



- 2 Erregistroa aipatzea izeneko leihoa, hautatu **RefWorks-era esportatu**.



- 3 Klikatu **RefWorksen bertsio berriaren** gaineko ikonoan eta saioa hasi.
4 Importazioa osatu dela esango digun mezua jasoko dugu.



:: ERREGISTROAK NOLA ESPORTATU DATU BASEETATIK

:: **DIALNET** Sarbide zuzena <https://dialnet.unirioja.es/> estekatik.

Bibliotekaren webgunearen bidezko sarbidea:

<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/932834349>

Egin nahi den bilaketa egin:

The screenshot shows the Dialnet search interface. At the top, there are tabs for Buscar, Revistas, Tesis, Congresos, and Autores. On the right, there are links for Ayuda and Español. Below the tabs is a search bar labeled 'Buscar documentos' containing the query 'derecho mercantil'. To the right of the search bar is a red 'Buscar' button. On the far right, there is a logo for 'ehuBiblioteca' and a small user icon.

The screenshot shows the search results page for 'derecho mercantil'. A blue circle with the number 1 points to the search bar. A green box highlights the first search result, which is a document titled 'Derecho Mercantil. Derecho mercantil y discapacidad' by Francisco Javier Maldonado Molina. A blue circle with the number 2 points to the 'Selección' (Selection) button in the sidebar. A blue circle with the number 3 points to the 'RefWorks' option in the 'Enviar/Exportar' (Send/Export) menu.

1

2

3

Relevancia 20

7.010 documentos encontrados

Derecho Mercantil. Derecho mercantil y discapacidad
Francisco Javier Maldonado Molina
Resumen jurídico de las personas con discapacidad en España y en la Unión Europea / coord. por Carmen Molina Fernández, Esperanza Alcaín Martínez, María Teresa Alameda Castillo, Juan González-Badía Fraga, 2006, ISBN 84-9836-072-2, págs. 15-170

La autonomía del Derecho mercantil. La Constitución y el Derecho mercantil. ensayo de un concepto del Derecho mercantil
Manuel Olivencia
Derecho Mercantil / coord. por Guillermo J. Jiménez Sánchez, Vol. 1, 2003 (Concepto, mundo y fuentes, empresa, estatuto del empresario, empresario individual, las sociedades mercantiles, derecho industrial y régimen jurídico de la competencia), ISBN 84-44-3234-X, págs. 28-45

La autonomía del Derecho Mercantil. La Constitución y el Derecho Mercantil: ensayo de un concepto del Derecho Mercantil
Manuel Olivencia
Derecho Mercantil: vol. 1. Concepto y fuentes del Derecho Mercantil. La empresa y el mundo empresarial. El empresario individual / coord. por Guillermo J. Jiménez Sánchez, Alberto Díaz Moreno, 2013, ISBN 970-04-15940-00-4, págs. 67-90

Derecho mercantil
José María Martínez Val
Editorial Bosch, 1979. ISBN 84-7162-792-2

Selección

Enviar/Exportar

- RefWorks
- EndNote
- Text
- BibTeX

Erregistroak RefWorks-era esportatzeko:

- 1 Markatu esportatu nahi ditugun emaitzak.
- 2 Sakatu Selección izeneko botoian.
- 3 Ireaki Enviar/Exportar menua eta hautatu **RefWorks**

:: ERREGISTROAK NOLA ESPORTATU DATU BASEETATIK

:: **PROQUEST** Sarbide zuzena <https://search.proquest.com/> estekatik.

Egin nahi den bilaketa egin (hobe da Chrome nabigatzalea erabiltzea):

The screenshot shows the ProQuest search interface. At the top, there are navigation links: Búsqueda básica, Búsqueda avanzada, Publicaciones, Examinar, and Bases de datos (9). Below the header is a search bar with the placeholder "Introducir términos de búsqueda...". Underneath the search bar are two checkboxes: "Texto completo" and "Evaluado por expertos". To the right of the search bar is a magnifying glass icon. At the bottom of the search bar area, there is a link "Consejos de búsqueda".

The screenshot shows the search results page for the query "alimentos funcionales". It displays 5.093 resultados. On the left, there are filtering options like "Ordenar por" (Relevancia), "Limitar a" (Text completo, Artículos evaluados por expertos), and "Tipo de fuente" (Revistas científicas, Tesis doctorales y tesinas, Periódicos, Revistas de carácter general, Revistas profesionales). A list of search results is shown, with the first result selected. Step 1 is indicated by a blue circle with the number 1 over the list of results. Step 2 is indicated by a blue circle with the number 2 over a callout bubble pointing to a "Todas las opciones para guardar" button. Step 3 is indicated by a blue circle with the number 3 over a callout bubble pointing to the "RefWorks" icon in the "Todas las opciones para guardar" modal window.

Erregistroak RefWorks-era esportatzeko:

- 1 **Markatu** esportatu nahi ditugun emaitzak.
- 2 Klik egin **"Todas las opciones para guardar"** ikonoan.
- 3 Aukeratu **RefWorks "Exportación de cita"** atala.

:: ERREGISTROAK NOLA ESPORTATU DATU BASEETATIK

:: **GOOGLE AKADEMIKOA** Sarbide zuzena <https://scholar.google.es/> estekatik.

Aldez aurretik konfiguratu behar da ondoko urratsei jarraiki:

- 1 Konfiguratzeko menua zabaldu.
- 2 Hautatu **Gestor de bibliografía** dioen aukera.
- 3 Markatu **Mostrar enlaces para importar citas a** eta hautatu **RefWorks**.
- 4 Egin klik **Guardar** botoian konfigurazioa gordeko bada ordutik aurrera egingo diren bilaketetan.

The screenshot shows the 'Configuración' (Configuration) section of Google Scholar. Step 1 is indicated by a blue circle with the number 1 over the 'Configuración' button. Step 2 is indicated by a blue circle with the number 2 over the 'Gestor de bibliografía' (Bibliography Manager) option in the 'Dónde aparecen los resultados' (Where results appear) section. Step 3 is indicated by a blue circle with the number 3 over the 'RefWorks' option in a dropdown menu. Step 4 is indicated by a blue circle with the number 4 over the 'Guardar' (Save) button at the bottom right of the configuration panel.


Handik aurrera egindako bilaketetan, **Importar al RefWorks** adieraziko da.

The screenshot shows the search results for 'etnología micronesia' on Google Scholar. The results list includes several articles. One article by C. Prieto from 2019 is highlighted with a large orange oval, showing the 'Importar al RefWorks' (Import to RefWorks) link at the end of its abstract. This link is also circled in orange. The page includes navigation links like 'Mi perfil' and 'Mi bib' at the top right, and filters like 'Artículos' and 'Cualquier momento' on the left.


:: ERREGISTROAK NOLA ESPORTATU **SAVE TO REFWORKS BIDEZ**

Erabili **Save to Refworks** pluginia, modurik errazena baita erreferentziak web saretik esportatzeko. Horretarako, osagarri hori instalatu behar dugu nabigatzaileak:

- 1 **RefWorks saioa** zabaldu eta sakatu norberaren izenaren gainean goialdeko eskuinean **saioa irekitze** fitxan.
- 2 Hautatu **tresnak** konfiguratzeko botoia.
- 3 Klikatu **Save to Refworks instalatzeko** botoiari. Ondoren, **botoi gisa** instalatzeko jarraibideak eskainiko dizkigu gure nabigatzailearen tresna barraren goiko aldean.



- 4 **Save to RefWorks** tresna instalatuta geratuko da **gure gogokoen barran**. Web dokumenturen bat esportatu gura dugunean, klik egin eta zabalduko da unean uneko webguneak dauzkan metadatuak biltzen dituen koadroa. Beti agertuko zaigu bete gabe diren eremuak eskuz editatzeko aukera.



:: NOLA ANTOLATU ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK :: KARPETETAN ETA AZPIKARPETETAN

- 1 RefWorks-era esportatutako dokumentuak **importatutako azkena** dioen fitxan biltzen dira.
- 2 Importatutako erreferentziak hautatu ahal dituzu eta gorde **Asignar a carpeta** dioen fitxaren bidez karpeta eta azpikarpetetan.
- Karpetak ere sortu** ahal dituzu honela: **3 Asignar a carpeta > + Crear**
- 4 Edo **nire karpetatik** ezkerreko zutabeen **> + Añadir una carpeta**
- 5 **Azpikarpetak ere sortu** ahal dituzu **nire karpetak** ireki eta nahi duzun karpeta hautatuz, **aukera gehiago** dioen ikonoan sakatuz eta **Añadir subcarpeta** aukeratz.

The screenshot shows the RefWorks application interface with several numbered steps indicating the process:


- 1 A blue circle with the number 1 is positioned on the left side of the interface, pointing towards the sidebar menu.
- 2 A blue circle with the number 2 is positioned on the right side, pointing towards the "Último importado" list where a reference is highlighted with an orange box.
- 3 A blue circle with the number 3 is positioned on the right side, pointing towards the "Asignar a carpeta" dropdown menu.
- 4 A blue circle with the number 4 is positioned on the right side, pointing towards the "Mis carpetas" sidebar where a folder named "Alimentación" is circled with an orange box.
- 5 A blue circle with the number 5 is positioned on the left side, pointing towards the "Mis carpetas" sidebar where the "Alimentación" folder is circled with an orange box.

The main window displays the "Importación completa" message and the "Último importado" list. The sidebar shows the "Mis carpetas" section with various folder categories and a list of imported documents.

:: NOLA EGIN BIBLIOGRAFIA INDEPENDENTE BAT

GrAL baten memoriaren amaieran, beste edozein lan akademikoan bezala, agertu behar dira ikerketan **erabili diren erreferentzia bibliografikoak**. Erreferentzia hauek unibertsitate ikastegi bakoitzak bere GrALerako arauetan **zehaztutako estiloan** eman behar dira. RefWorks aplikazioak automatikoki eskaintzen digu bibliografia hori nola osatu, estilo bakoitzaren irizpideak aintzat hartuta. Honako hauek dira bete beharreko urratsak:

- 1 Hautatu bibliografian gehitu nahi ditugun erreferentziak. **Karpeta oso bat** izan daiteke (karpetari zuzenean sakaturik) edo **erreferentzia soleak** (banaka hautatu beharrekoak).
- 2 Hautaketa osatu ostean, **komatxo bikoitzen** botoiari sakatu.
- 3 Ondoren, hautatu **bibliografia osatzeko** aukera.
- 4 Hautatu **formatua**: APA, Chicago eta abar.
- 5 **Copiar en el portapapeles** aukera eginez, bibliografia kopiatu egindo da, beste edozein testu prozesagailutan txertatzeko moduan.





:: NOLA LORTU REFWORKS CITATION MANAGER

Refworks Citation Manager aipamen bibliografikoak lanean txertatzen laguntzeko tresna da, **Microsoft Word**-i loturiko tresna. **Word 2016** bertsioan, zuzenean instalatzten da gehigarri hau Word-en dendan.

Beste bertsioetarako edo testu prozesagailuetarako, RefWorks aplikaziotik kontsultatu behar dira gehigarri egokia eskuratzeko moduan, nork bere erabiltzaile profilean, tresnen atalean klikatzuz.

- 1 Ireki Word dokumentu bat eta sakatu txertatzeko botoiari:
- 2 Dendara sartu.
- 3 Nabigatzalean RefWorks idatzita, **RefWorks Citation Manager** gehigarria agertuko zaigu.
- 4 Sakatu gehitzeko, instalazioa egiteko.




RefWorks Citation Manager erabiltzeko Word-en hurrengo saioetan, Nire gehigarriak ireki eta bera aukeratu.

:: NOLA TXERTATU AIPAMENAK TESTUAN

Aipamenak txertatu ahal izateko Word 2016ko dokumentuetan, instalatuta behar dugu lehenagotik RefWorks Citation Manager gehigarria. Behin instalatu dugularik, nahikoa litzateke **Nire gehigarriak** ireki eta hautatzea.

- 1** **Leihobat** irekiko da pantailaren eskumara, gordeta diren erreferentzia guztiekin.
- 2** Aipamen bat gehitzeko, **erreferentzia bat hautatu** besterik ez dugu egin behar.
- 3** Klikatu **Insert Citation** eta aipamena txertatuko da kurtsoarea zegoen tokian.



- 4** Aipamenak txertatu ahala, **bibliografia** osatzen joango da, gure testuaren beheko aldean aukeratu dugun estilo bibliografikoaren arabera.

The screenshot shows the Microsoft Word document with the "References" section highlighted by a blue circle labeled '4'. Below the references, there is a list of sources. To the right, the "RefWorks Citation Manager" window is open, showing the same list of references with checkboxes. The "chillida" search term is still present in the search bar.

Reference
Barreiro López, P. (2003). Oteiza y chillida, dos paradigmas de la escultura contemporánea española. <i>Archivo Español De Arte</i> , 76(303), 341-342. Retrieved from https://ehu.on.worldcat.org/oclc/7180691746
Davidts, W. (2018). Not unlike scale models: Eduardo chillida and architecture. <i>Sculpture Journal</i> , 27(3), 297-307. doi:10.3828/sj.2018.27.3.3
Stefano Esengrini, (2012). Heidegger e chillida. un dialogo sullo spazio. <i>Aisthesis</i> , 3 doi:10.13128/Aisthesis-11030